



Usurbilgo Udala

## 2021EKO IRAILAREN 7AN EGINDAKO EZOHIKO UDALBATZAREN BILKURAKO AKTA

### BERTARATUAK

#### Alkate-Lehendakaria

Agurtzane Solaberrieta Mesa

#### Zinegotziak

Beñat Larrañaga Urdanpilleta  
Lur Etxeberria Gurrutxaga  
Joxe Mari Iribar Zapirain  
Ainhoa Arrozpide Landa  
Luken Arkarazo Silva  
Oskar Santamaria Pikabea  
Itziar Basterrika Unanue  
Josune Urkola Larrarte  
Mirari Azurmendi Sorazu  
Carlos Pérez Fraisoli  
Andoni Atxega San Sebastian  
Francisco José (Patxi) Suárez Pérez

**Idazkaria:** Garazi Etxeberria San Miguel

Arratsaldeko 18:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

Usurbilen, 2021eko irailaren 7an arratsaldeko 18:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ezohiko Udaltza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Agurtzane Solaberrieta Mesa izan da Batzarburua.

### **1.- USURBILGO UDALAK OINARRIZKO LANBIDE HEZIKETAKO PRESTAKUNTZA-ZIKLOAK EMATEKO EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA SAILAK EMANDAKO ESKUMENAREN ESKUORDETZEA ONARTZEA.**

Alkateak adierazi du Hezkuntza batzordetik diktaminatuta datorrela eta Beñat Larrañagari eman dio hitza azalpenak eman ditzan.

Beñat Larrañagak adierazi du aurreko hitzarmenaren eskuordetza 2020an amaitu zela, baina denek dakiten bezala pandemia egoerak ez zuela ahalbideratu Eusko Jaurlaritzaren bitartez hitzarmen berria lantzea eta, ondorioz, hitzarmenari urtebeteko luzapena egin zitzaioela.



Usurbilgo Udala

Urtebete pasa dela eta hitzarmen berria sinatzeko momentua iritsi dela esan du.

Hezkuntza batzordean esan zuten bezala, aldeko bozka emango dute noski, baina aldeko bozka hori kritika puntu batekin egingo dutela azpimarratu du. Dekretu hau gaizki eta berandu kudeatu dela iruditzen zaie, izan ere bihar hasten duten ikasturtearen eskuordetze hori gaur bertan onartu beharrean daudela dio ez zuelako denborarik eman Udalaren barruan uztailean bertan kudeatzeko, kontutan hartuta dekretu honen lanketa Hezkuntzan 2020ko azaroan hasi zutela baina uztailean arte ez zutela bideratu. Horrek esan nahi duela dio Oinarrizko Lanbide munizipala agendan ez dagoela egon beharko lukeen tokian.

Jarraitu du esanez beraien ustez hezkuntza badela gizarte kohesionatu eta orekatua garatzeko tresna bat eta zentzu horretan Oinarrizko Lanbide Hastapena izugarritzko garrantzia duen agente edo erakunde bat dela azpimarratu du. Hezkuntza sailak azkenean Lanbide Heziketaren bikaintasuna bilatzen duela eta European erreferentzialtasun bat baduela dio, baina bikaintasun horrek behar gehiena duen jendearengana iritsi beharko lukeela azpimarratu du, kasu honetan Oinarrizko Lanbide Hastapeneko ikasleengana.

Bai herrietako ordezkariekin egin diren lansaio ezberdinetan, baina baita Eusko Jaurlaritzan bertan, EH Bilduk lehenengo zirriborro hori hobetzeko hainbat proposamen egin zituela adierazi du. Proposamen horien harira hainbat lorpen egin direla esan du, hala nola, gizarte langilearen figura kontsideratzea lortu dute, Udalek defiziten bat baldin badaukate Jaurlaritzak defizit hori asumitzeko aukera kontenplatzea eta Udalek momenturen batean gainfinantziazioren bat egiteko aukera izatea, izan ere udalerrri batzuetako idazkari eta kontuhartzaileekin gatazka batzuk sortu izan direla dio gainfinantziazio bat egon denean edo udalek ekarpen ekonomikoren bat egin behar izan dutenean.

Jarraian, arazo hori zergatik sortu den eta arazo horrekin amaitzea zergatik ez duten lortu azaldu du, eskuordetzen den eskumen bat izanagatik ez dagoelako nahiko finantziazio zerbitzu guzti hau aurrera eramateko Eusko Jaurlaritzak ematen duen diruarekin. Hau da, udalek beren eskumena ez den zerbitzu bat garatzeko herritarren dirua erabili behar dutela dio zerbitzu hori %100ean bermatzeko.

Hasieran Hezkuntza sailak 40 milioiko aurrekontu bat kontenplatzen zuela esan du, baina azkenean 37 milioira jetsi dela adierazi du. Bestalde, inbertsioak egiteko diru-lerro propio bat sortzea ere proposatu zutela esan du baina ez dela lortu.

Hau guztia dela eta, lehen aipatu duen bezala aldeko bozka emango dute baina jarraituko dutela dio orain arte bezala behar horiek defendatzen, hau da, Eusko Jaurlaritzak defizita asumitzeko aukera onartu duen neurrian kontenplatu dezala partida propio bat defizit horiek asumitu ahal izateko, inbertsioak egiteko dirulaguntza lerro propioa sortu dezatela eta pertsonal saileko Nicolas Sagarzazurekin hitzegindakoaren arabera, sare publikoko zerrendak eskura jar ditzatela kontratazioak eta ordezkapenak egin ahal izateko eta era berean bertan lan egiten duten langileei kontsideratu diezaietela bertako lan praktika gainontzeko lanbide heziketako maila berdinean beraien lan esperientzia baloratzerako garaian.

Amaitzeko, Beñat Larrañagak adierazi du ez zaiela iruditzen Hezkuntza sailak behar bezalako garrantzia jarri duenik gai honetan gizarte kohesiorako elementu garrantzitsua den



Usurbilgo Udala

neurrian. Bestalde, lortu diren aurrerapenak behin eta berriz errepikatuz eta presio bidez izan direnez, bide horretan jarraituko dutela gaineratu du.

Batzarkideek, Hezkuntza eta Tokiko Garapen Batzorde Informatzailearen irizpena kontutan hartuta, honako erabakia hartu dute aho batez:

#### **“AURREKARIAK:**

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak urtetan arautu eta bultzatu ditu hasieran Lanbide Hastapen bezala ezagunak ziren ikastaroak eta 2008 geroztik Hasierako Lanbide Prestakuntza programak.

Estatuak indarrean jarritako hezkuntzako antolamendu berriak HLPPak desagerrarazi zituen, eta 2015-16 ikasturtean, Oinarrizko Lanbide Heziketa programa jarri zen abian.

Oinarrizko LHri buruzko otsailaren 28ko 127/2014 Errege Dekretuaren lehenengo xedapen iragankorren bidez, Hastapeneko Lanbide Trebakuntzako programak eman zituzten toki korporazioei baimena eman zitzaizen, besteak beste, 2014-2015 eta 2015-2016 ikasturteetan Oinarrizko Lanbide Heziketako heziketa-ziklo berrien lehenengo kurtsoa emateko, betiere, lehendik ematen ari ziren programen lanbide-profilekin bat datozen tituloetan. Eta 2016-2017 ikasturteetik aurrera, Oinarrizko LH ikasketak hezkuntza administrazioak behar bezala baimendutako ikastetxeetan bakarrik eskainiko dira.

Usurbilgo Udalak 2015eko irailaren 10ean egindako udalbatzan Oinarrizko Lanbide Heziketa eskaintzeko Eusko Jaurlaritzaren eskumena eskuordetzeko jasotako akordio proposamena onartu zuen, 5 urtetarako, hau da, 2019-2020 ikasturterarte. 2020ean baina, eta COVID pandemiari aurre egiteko alarma-egoera tarteko, eskumen dekretu berria ezin izan zen izapidetu, eta ezinbestekotzat jo zen eskumenak eskuordetzeko erabakiaren indarraldia luzatzea, 2020-2021 ikasturtea barneratuz.

#### **OINARRIZKO LANBIDE HEZIKETAKO PRESTAKUNTZA-ZIKLOAK EMATEKO ESKUMENAREN ESKUORDETZEA ONARTZEA**

Orain uztailaren 6ko 176/2021 Dekretuaren bitartez udal eta/edo toki-erakunde jakin batzuei oinarrizko mailako heziketa-zikloak emateko eskumena eskuordetzen zaie, tartean Usurbilgo Udalari. Hain zuzen ere, Usurbilgo Oinarrizko Lanbide Heziketa ikastetxeak Ile-apainketako eta Estetikako oinarrizko lanbide-titulua (ile-apainketa) eta Sukaldaritzako eta Jatetxe-arloko oinarrizko lanbide-titulua ematea onartzen zaio.

Aipaturiko Dekretuaren helburua onartutako heziketa ziklo horiek emateko eskumena bost ikasturtez eskuordetzea da I. Eranskinean adierazitako udalei eta/edo toki erakundeei; lehengo ikasturtea 2021-22koa izango da, eta azkena 2025-2026koa.

Eskumen eskuordetze horretan sartua dago oinarrizko mailako ikaskuntzak ematen dituzten ikastetxe publikoei eskeinitako zereginak egitea, dekretuaren I. Erankinean ageri diren zikloetarako (tituluak), ikastaroetarako eta eskola-unitateetarako (taldeak)



Usurbilgo Udala

Beste alde, eskuordetzearen zenbatekoa urteka, II eranskinean zehazten da, 2021eko irailetik 2026 artekoak, lehenengo mailarako bi talde eta bigarren mailarako beste bi, ileapainketako eta estetikako oinarrizko lanbidean eta Sukaldaritzako eta Jatetxe-arloko oinarrizko lanbidean, guztira, 1.785.680, 59 € iritsi daiteke.

III. Eranskinean zehazten dira zenbatekoak, ikasturteka, lanbidea, zikloak eta gastu kontzeptu hauek kontutan hartuta: irakasleen eta irakasle ez diren langileen gastuak, funtzionamendu eta mantentze gastuak eta inbertsio errealak birjartzea. Beraz eranskin honetan ileapainketa eta sukaldaritza lanbidetan, lehenengo eta bigarren mailerako zehazten diren modulo ekonomikoak aztertu dira eta aurreko ikasturtean emandakoari %2a gehitu zaio eta ondorengo ikasturtetarako ere horrela egiten da, hau da, ikasturte batetik bestera %2ko igoera ezartzen da.

Hauexek dira zenbatekoak:

IKASTURTEA	ILE-APAINKETA			SUKALDARITZA			GUZTIRA ILE-APAINKETA/SU KALDARITZA
	1. MAILA	2. MAILA	GUZTIRA	1. MAILA	2. MAILA	GUZTIRA	
21-22	92.503,49	71.767,26	164.270,76	96.525,04 €	75.041,71 €	171.566,75 €	335.837,51
22-23	94.353,56	73.202,61	167.556,17	98.455,54 €	76.542,55 €	174.998,09 €	342.554,26
23-24	96.240,64	74.666,66	170.907,30	100.424,65 €	78.073,40 €	178.498,05 €	349.405,35
24-25	98.165,45	76.159,99	174.325,44	102.433,14 €	79.634,87 €	182.068,01 €	356.393,45
25-26	100.128,76	77.683,19	177.811,95	104.481,81 €	81.227,57 €	185.709,37 €	363.521,32
	481.391,90	373.479,73	854.871,62	502.320,18 €	390.520,10 €	892.840,28 €	1.747.711,90

Lau hilabetetik behin egingo dira bai ordainketa eta baita zuriketa ere.

Eskuordetzearen 2. artikuloko 2. puntuan zehazten da, Hezkuntzaren arloan eskumena duen sailak udal eta/edo toki-erakunde bakoitzari finantziatuko dio eskuordetutako zerbitzua ematearen kostu osoa, baldin eta ikastaro eta titulu bakoitzerako ikasle-kopurua osatzen bada, titulartasun publikoko ikastetxeetarako ezarritako irizpide eta orduekin bat etorrira.

Hala ere, artikuluko berean 5. puntuan zehazten da eskuordetutako eskumena baliatuz, udalerriek eta mankomunitateak finantza-baliabide gehigarriak jarri ahal izango dituztela dekretu honetan onartutako zenbatekoen gain.

Beste alde, Hezkuntza-zentroaren zuzendaritza eta kudeaketa udalari dagokio. Hezkuntza Sailak bere gain hartuko ditu gainbegiratze- eta kontrol-jarduketak, nola eremu pedagogiko hezitzailean, hala kudeaketa ekonomikoan.

Aurreko guztia kontutan harturik, Oinarrizko Lanbide Heziketako prestakuntza-zikloak emateko eskumenaren eskuordetzea eraginkorra izan dadin Usurbilgo Udalaren Udabatzak onartu beharko du.

Ikusirik Udal idazkariak, kontuhartzaileak eta Hezkuntza eta Garapen Batzordeko teknikariak emandako aldeko txostenak espedientean jasoak geratzen direnak,

Hezkuntza eta Tokiko Garapen Batzordeak, 2021eko irailaren 2an egindako bilkuran, Agurtzane Solaberrieta, Beñat Larrañaga, Ainhoa Arrozpide, Josune Urkola eta Patxi



Usurbilgo Udala

Suarezen aldeko botoekin, aho batez, egindako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakiak hartu ditu aho batez:

## ERABAKIA

**LEHENENGOA:** Oinarrizko Lanbide Heziketako prestakuntza-zikloak emateko eskumenaren eskuordetzea 5 ikasturtetarako onartzea (2021-22, 2022-23, 2023-24, 2024-25, 2025-26), uztailaren 6ko ,176/2021 Dekretuan jasotzen denaren arabera, zeinaren bitartez udal batzuei oinarrizko mailako heziketa-zikloak emateko eskumena eskuordetzen baitzaie.

**BIGARRENA:** Akordio honen onarpenaren berri Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari jakineraztea.”

Bozketa honela izan da:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapiain, Ainhoa Arrozpide Landa, Luken Arkarazo Silva, Oskar Santamaria Pikabea, Itziar Basterrika Unanue, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Carlos Pérez Fraisoli, Andoni Atxega San Sebastian eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

## 2.- GALDERA-ESKAERAK.

Josune Urkolak galdetu du ea astelehenean izango den Beterri Buruntza Mankomunitateko estatutuak behin betiko onartzeko batzarra eta erantzun zaio baietz, Andoaingo Udalak bihar egingo duela deialdia.

**Alkateak batzarraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 18:10etan eta bilera agiri hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.**